

Zeanuriko XXX. Ermiten Mendi Martxea urri lehenengoaren 2an izango da
15. orrialdea

Su ta Gar Dimetal jaialdian izango da

Urri lehenengoaren 16an Dimetal Fest, Dimako heavy metal musikako jaialdiaren hirugarren edizinoa izango da. Zortzi kontzertu egongo dira Evil Seed, Las Days of Eden, Ost, The Faithless, Su ta Gar, Raven's Gate eta Drakum taldeen eskutik. Goizean, Dani Alvarezek zuzenduko dau mahai-ingurua. Bazkaria be egongo da eta metal poteoa. 16. orrialdea



Isaak Atutxak Arantzazuko historiarako materialak argitaratu ditu
17. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

279

2017ko urri lehenengoaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Arteako jaiak, udako azkenak

Arteako jaiak emongo deutsee amaiera udako herrietako jaiak. Jaiok astegoen bi hartuko ditue; urri lehenengoaren 7tik 10era arte andramari jaiak ospatuko ditue, eta hurrengo zapatu-domekan MerkArtea.

Eskean Kristök eta Vinagre de Modernak animauko dabe barikuko gaua, hilak 8, eta Raust! taldeak zapatukoa. Erromeriak, Play-back Lehiaketea, kale antzerkia eta Kuadrillen arteko Olinpiadak dira Jai Batzordeak antolatu dituan ekintzetako batzuk. Umeentzako zezen mekanikoa eta puzgarriak egongo dira zapatuan frontoian.

Hurrengo zapatuan, hilak 16a, egingo dan azokearen harira be egongo dira kontzertuak. Bezperan, bariku gauean Niko Etxart eta Hapa Hapa egongo dira Artean eta hurrengo egunean Ruper Ordorikak kantaldia eskeiniko dau. Bertso poteoan Amets Arzallus eta Angel Mari Peñagarikano egongo dira. 5. orrialdea



ARRATIA

2017-2018 ikasturterako ikastaroak

Urrietan hasi eta maiatza-bagilera arteko hainbat ikastaro antolatu ditue Arratiako udalak eta Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak. Sukaldaritza, Jantza moderna, Txi kung... Bedia, Dima eta Lemoako Udalak ia 30 ikastaro antolatu ditue, eta jabekuntza eskoleak beste hamaika. Beste herriak antolatutako ikastaroen barri hurrengo BEGITU emongo da.

Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak, andren prestakuntza handitu eta parte hartze publikoa bultzatzeko helburuagaz, bost lan ildo landuko ditu aurten: Feminismoa, Osasuna, Kultura, Andren identitatea eta Andren arteko alkartasuna eta alkarlana.

Oraingo hilean zabalduko da izena emoteko epea ikastaro gehienetan. 5. eta 16. orrialdeak

AREATZA

Botoak etxez etxe bananduko dabez

Erabakitze Eskubidearen aldeko Areatza Dagigun alkarteak informazio kanpaina abiatu eta botoak etxe etxe bananduten hasiko da urrietan. Izan be, zemendiaren 5erako antolatuko dabe herri galdeketea Areatzan eta urri bigarrenaren 28 eta 29an be emon ahal izango da botoa.

Urri lehenengoan, herriko taberna batzuetan, pintura erakusketa ibiltaria egongo da eta horko zazpi koadro zozketatu egingo dira urri bigarrenean Gure Esku Dagoren ekitaldi baten. 7. orrialdea

ARRATIA

Arratian literatura erotikoa zabaltzeko azpiegitura egokia dago

Dimako Kalenturak eta Basauriko Euskarabila alkartearen ipuin erotikoen lehiaketak Arratian itxitako lorratza sakona dala dino Alvaro Rabellik. Izan be, Igor Estankona, Julen Gabiria, Alvaro Rabelli, Rafa Ugalde, Janire Lopez, Zefe Ziarrusta eta Maite Arrizabalaga Arratiakoak lan erotikoen egileak dira. Rabelliren ustez, esan geinke euskal literatura erotikoa Arratiara etorri dala gure artean sustraitzeko asmoz. 8. eta 9. orrialdeak



Erinn
ENGLISH
SCHOOL

- Cambridge / EOI (ESOL - IELTS) Azterketa ofizialeterako prestakuntza
- Maila guztiak, umeak 4 urtetik aurrera
- Mintzapraktikan arreta berezia
- Ingeles irakasle natiboa, 15 urtetik gorako esperientzia
- Klaseak enpresetan
- Ordutegi malgua (zapatuak barne)
- Talde txikiak

IRAILERAKO MATRIKULA ZABALIK

Apunta zaituz!

INFORMAZINO GEHIAGO

BARRY - AGATE 665 289 259
erinnigorre@gmail.com
f Erinn Igorre

Olabari, 17 (Polikiroldegia ondoan)
48140 IGORRE

ARRATIA KOLOREETAN

BUELTAN GARA!

Arratiatik urtenda, hamabi egun Ondarroan pasau ostean bueltan gara Zaztaparrak, gaztetxeonakandik hasita, eta begirale beteranoenak barne. Aurten gainera, ez dogu betiko udalekuen eskema jarraitu eta esperientzia barriak probatu doguz, inoz baino ume gehiago eroanda. Ia 160 buru izan gara guztira Zubi-zahar Ikastolan, imajinetan dozuenez isiltasuna ez da nagusi izan ikastolako opor-garai honetan.

Atzen urteotan udalekueetan bizi izan dogun gorakadea ikusi eta bizi ostean, Zaztaparrak argi izan dogu hasieratik ume guztiak udalekuek etorteko eskubidea

daukiela. Horregaitik, matrikula kopurua gorantz joan dan neurrian erantzuna prestatzea izan da gure helburua, eta aurtengoan honegatik aurrera egin dogu, matrikula guztiak onartuta. Eta pozik gatzoz bueltan emoitzeagaz, triste barriz Zaztamundua atzean ixtearren.

Aurten be, aitzuko ez doguzan hamaika esperientzia barri ekarri doguz geugaz Euskal Herriko kostatik. Nagusiak oinez Bizkaia gurutzatu eta gero ikastolan egingako harreraren momentua, hondartzako jokoak, superbibentzia, janlekuko kantak eta Ondarroako gatzetxeok egindako bromak,

beste askoren artean. Ez, arrautzak kristaletara ez ebezan bertako ume makarrak ez begiraleok bota bildurtuteko gogoz, gatzetxeok ohiko bromak bat izan zan, eta begiraleok be berandua-go jakin dogu.

Halanda be, beti dagoz hobetu eta gehitzekoak, batez be gure gazteen heziketea jokoan dagoan. Eta honen inguruan lan egiteko momentua haxe dogu, urtero lez udalekuek bueltan da barne-kritikearen, hausnarketen eta proiektuen birziklapenaren garaia. Izan be, hurrengo udalekuak bueltan datoz eta bada lanean hasteko garaia!

Beste barik, eskerrik asko esatea baino ez daukagu, aurten be udaleku honek eregi eta haz-

ten lagundu dozuen ume guztioi; hurrengo urtera arte!

Zaztaparrak Asti Taldea



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abuztuaren 28tik urri lehen. 3ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 4tik 10era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 11tik 17ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioratza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Rake Aldekoa Diez, Felipe Barrenetxea, Ainhoa Duñabeitia eta Alvaro Rabelli.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milkua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Emma Aguilar eta Iker Perez (Igorre) eta Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 7.100 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.100 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutzinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

ERETXIA

Zer ekarriko deusku etorkizunak Bartzelonako 2017ko abuztuko atentaduen ondoren?



IKER BARBERO
EHU-UPVko irakaslea

Oindino gatxa da jakitea epe luzera zeintzuk izango diran abuztuaren 17ko Bartzelona eta Cambrillseko atentaduen ondorioak. Europako beste uri batzuetan legez, Niza, Stockholm, Berlin, Paris edo Londonen legez, *modus operandi*-a zera izan da: jentez betetako kale baten ibilgailu batez sartu eta ahalik eta jente gehien harrapatu. Beste berba batzuek esanda, uri erdiko kaleetatik, aireportuetan eta beste garraio masiboetan ohitu behar izan garan segurtasun kontrol zorrotz barik ibilteko trankilidadea urratu da. Eta akaso horixe izango da hurrengo pausua: uri handien erdiguneen "hipersegurtazinoa" ezartzea. Neurriak, polizia ugaritze, edo-eta auto furgoneta eta kamioiak oinezkoen guneetan ez sartzeko oztopo fisikoak ipintetik, benetako *check point* edo polizia barrerak ezartzerainokoak izan daitezke. Atzen honek, eremu batzuk gotortzea ekarri ahal dau, eta uriaren esentzia eta gure trankil paseatzeko ohiturak errotik aldatu. Gainera, atentadu honek turismo ereduaren eztabaidaren erdian gertatu dira, turismo masibo edo, gurago izan ezker, "turistofobiaren" inguruko deba-tearen erdian. Terroristak Bartzelonako Ramblak edo Cambrills aukeratu izanak, seguru asko zeri-kusia izango dau han turista asko ibiltzen diran kontuagaz; hau da, "biktima asko, eragin ekonomiko handia eta oihartzun handia nazinoartean" izateko helburuagaz. Hemetik aurrera, duda barik, segurtasuna kontuan izan beharreko faktorea izango da oingo turismo urbanoaz berba egiterakoan.

Atentaduak eragina izango dau barriro be, beste eztabaida baten, gizartearen kanpoztarren harrera

ereduan, atzeritar eta errefujiaduen harrera eredu, hain zuzen be. Atentaduak txarresten urtetako lehenengo kolektiboetako bat etorkin alkarteak eta musulmanen kolektiboak izan ziran. Izan be, Al-Qaeda/Daesh-ek ekintza bat egiten dauan bakotxean, kolektibo eta alkarte horreei begira ipinten da gizartea. Zoritxarrez ohituta dagoz euren errubakotasuna frogatu behar izaten, eta etorkin musulmanak (eta horren susmagarriak) argi daukie mezua: "hori ez da Islama" edo "horretatik igesi etorri gara". CEAR errefujiaduen babeserako erakundeak, mezu bat atera dau eanez azkenengo atentaduak Bartzelonaz gainera, Pakistanen, Iraken, Afganistanen, Yemenen, Nigerian edo Malin be izan dirala eta herrialde horreetatik datozala asilo eskatzaile asko. "Mundu guztiak euki behar dau terroretik iges egiteko eskubidea" dino CEAREk. Atentaduen derrigorrezko ondorio legez, mugak zarratutea edo asilo eskubidea deuseztatzea ezin dogu onartu, ze jente askoren bizitzak, asilo eskatzaile eta errefujiaduak hartzean jarraitzeagaz ezinbesteko loturea dauka.

Gogorra da esatea, baina holango gertakizun bat gertatzen dan bakotxean, proban ipinten da giza kalidade kolektiboa. Beste batzuen artean, Democracia Nacional eta Falangek deitutako ultraeskuindar dezena batzuek momentua aprobetxau eben atentaduak izandako lekuan bertan konzentrazinoa egiteko "terroristak ez dira ongi etorriak" (vs ongi etorri errefuxiatuak) eta "Stop Europako islamizazioari" lelopean. Eskerrak ehunka personak aurre egin eutseela, ideologiari jagokonean behintzat, sarraskiaren egileen maila berean dagozala adierazoz. Gero eta gehiago barneratzen da ultraeskuinteko diskurtso ergel hau: "segurtasun handiagoa etxeokentzat". Nazinoarteko panoramea ikusi besterik ez dago. Ze gizarte, uri, erdigune eredu gura dogu? Itaun honen erantzunaren arabera, trankilago biziko gara (trankilago eta seguruago ez da gauza bera).

* **Erredakzioan itzulia**

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Uriola



Euria bota ahalean edo atertu barik, euria eta euria izaten danean, ibai edo erreketako urak gainezka, indar handiz, gora eta gora egiten dabe, askotan errekek errementau edo euren lekutik urten arte. Horixe da uriola (uriolak, pluralez agoskatuta). Batuan, uholde da. Adibide bi dakarguz: "Gure seintxo azken uriolen denporetakoa da, orduko egunetan jaio zan" eta "Sekulako uriolak egon ziran 1983an".

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Endak
Batzen gara

MONDRAGON

LUMATUTEN



MIKEL URRIZ

Munduari
begiratzeko
talaia

Egunerokoa aztertze-ko aukeratzen dogun talaia munduari begiratzeko modua baldintzatzen deusku. Gure burua batean edo beste batean kokatzeak, gertakizunak aztertze-ko eta baloretako abiapuntuak ezartzen deuskuz. Subjektibidadeak, azken baten, gure eretxiak eta jakerak moldatzen ditu. Begibistakoa dan hau jakintzat jotzen dogun arren, sarri askotan ahaztu egiten jaku, eta halaxe egun baten gure kritika zorrotzenak me-rezidu dituana, txalo zaparrada batez agurtu edo atxakiaz esku-setan dogu beste baten. Gauzak holan, subjektibidadearen mugak gainditzeko, eretxi kritikoa osotu eta aberasteko mundua ikuskatzeko aukeratzen dogun talaia bista zabala eta xehetasunez josia eskeini beharko leuskigu ateko behatxuloaren ikuspegia zabaltzeko.

Harira! Kezkatua naukie parte-

hartze prozesu desbardinaren inguruan bakotzak eregi izaten dogun eretxi nahiz diskursoak. Kuriosoa behintzat iruditzen jata, balorazioa eta kritika egiteko, parte hartze baldintzak alderatu barik, prozesua nok bideratu eta prozesuan nok parte hartzean dauan aintzat hartzean dogula. Orduan, neu eta nire ingurukoak prozesuan gabilzanean iruditzen jaku oso parte hartzailea eta erabatekoa dala. Beste jente batek bultzatu eta garatu ezkerro barriz, prozesuak ez dau baliorik, makillaje eta irudikapena baino ez da. Errezagoa egiten jaku gure babesgunetik mundua begiratzeko, menperatzen dogun eremuko ateko behatxulotik begiratzeko, gure ikusmira zabaltzeko daikien beste zehetasunak eta eretxiak kontrastetea baino. Eroso eta segurua egiten jaku gure kontrolpean dagoan giroan murgildu eta geurean jarraitzea, akatsak eta hutsuneai aurre egin barik, edozein atxakiaz justifikauz.

Ez naz ni parte hartze prozesuetan aditua, eta ez dot predikariarena be egin gura, baina ate zabalak izan behar ditu parte hartze prozesu orok. Gardena izan behar da, informazioa -osoa- guztioi ailegau behar jaku eta ebatzian eragin ahal izateko gaitasuna duda bakoa izan behar da, seguru! Baina horregaz batera alkarlana egiteko prestutasuna eta enpatia doi bat be erakutsi behar da. Mundua begiratzeko modu kritiko eta aberatsa eskeini deuskun talaian ezari beharko ginateteke.

ZERTZEAN



AINHOA MENDIA



BEGI TXINDORRA

Nantes (Frantzia) herriko Landareen Parkean ateratako argazki hau bialdu dau Maria Angeles Larraondok. Paletak berrerabiliz egindako artelan bat ikusten da bertan, landareak maila desbardinetan ipinteko balio dauana. Eskerrik asko Maria Angeles baztertxo hau BEGITUKO irakurle guztiakaz konpartidutearren, eta zorte on!

BEGITUKO Argazki Lehiaketan parte hartzea sano erreza da eta irabazleak sari ederra jasoko dau. Parte hartzeako, gehienez hiru argazki bialdu behar dira begitu@topagunea.com helbidera, hilaren 25a baino lehenago. Argazkia non, noz eta nok aterata dagoan esan behar da.

Denporea aurrera doa eta laster udako oporrak oroimenean baino ez doguz izango. Konpartidu zure oroitzapenak geugaz, konpartidutakoak gehiago irauten dau eta.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarronga
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARTEA

Andramari jaietarako eta MerkArtearako dana prest

Arteko jaiak zati bitan dagoz bananduta. Eguenean hilak 7, txupina bota eta Andra Mari jaiak ospatuko ditue artean. Lau egun horreetan rock musikea izango da nagusi: Eskean Kristö, Vinagre de Moderna, Rockalean eta Raust! taldeak animauko dabez gauak. Erromeriak be ez dira faltauko iluntze eta gauetan, eta egunean zehar kalejirak, antzerkia eta lehiaketa gastronomikoak egongo dira beste ekintza batzuen artean.

Erredakzioa

Hurrengo bariku-zapatuan, MerkArtea dala-eta, euskal musikeak hartuko dau protagonismoa. Niko Etxart eta Ruper Ordorika mitikoak egongo dira artean. Iñagariak eta EinGO Kantan eta Dantzan talde barriagoak

be betiko kankak kantau arazoko deutseez bertaratutakoai. Bertso-poteoa be egongo da Amets Arzallus eta Angel Mari Peñagarikanogaz.

Urri lehenengoak 7, eguena

18:00etan, txupinazoa udaletxean, kalejireia, buruhandiak eta batuka-

dea.

20:00etan, erromeria Bide Batez triki taldearen eskutik.

Urri lehenengoak 8, barikua

11:00etan, mezea.

12:00etan, kopautxoa jubiladuentzat.

17:00etan, kale antzerkia *Atsuak dantzan*.

20:00etan, oilasko jana.

21:00etan, erromeria Joxe Mendizabalen eskutik.

22:30ean, Umeen Play-back Lehiaketea.

00:30ean, kontzertuak: Eskean Kristö eta Vinagre de Moderna.

Urri lehenengoak 9, zapatua

Mozorro gaua: tribu afrikarrak

10:00etan, Tortilla Txapelketea.

11:00etan, puzgarriak eta zezen mekanikoa frontoian.

12:00etan, kalejireia herrian zehar Musika Eskolearen eskutik.

18:00etan, Kuadrillen arteko Olinpiadak.

21:30ean, Rockalean taldearen kontzertua.

00:00etan, Raust! taldearen kontzertua.

01:00etan, erromeria Irtazar taldeagaz.

Urri lehenengoak 10, domekea

12:00etan, eskupeletoa.

13:30ean, Arteko Dantza Taldearen emonaldia.

16:00etan, umeen txokoak.

16:00etan, Mus eta Briska Txapelketea.

20:00etan, erromeria Jokaldigaz.

21:00etan, txokolatea.

Urri lehenengoak 15, barikua

14:00etan, jubiladuentzako bazkaria herriko plazan.

17:00etan, Iñagariak taldearen kantaldia.

23:30ean, Niko Etxart eta Hapa Ha-

paren kontzertua.

Urri lehenengoak 16, zapatua MerkArtea

10:00etan, Azokearen hasikerea.

11:00etan, herri kirol joko parte hartzaileak plazan.

11:00etan, betiko abestiak EinGO Kantan eta Dantzan taldeagaz.

12:30ean, bertso-poteoa Amets Arzallus eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariakaz.

20:30ean, Ruper Ordorikaren kantaldia.

00:00etan, erromeria Tximeleta taldeagaz.



ZEBERIO

HdH rock talde feministeak zapatu gaua animauko dau

Erredakzioa

Hilaren 2an, zapatuan, gaueko kontzertuak hasikerea Bilboko HdH rock talde feministeak emongo deutse. Akabuk eta En Tol Sarmientok osotuko dabe rock gaueko kartela.

Zeberioko Jai Batzordeak, jaietako ekintzetan, gizon eta andren arteko bardintasuna txertatzeko ahalegina egin dau. Talde feministea ekarteaz gainera, eraso sexistarik bako jaiak bultzatzeko kanpainearen barruan, Puntu Morea egongo da plazan Berdintasun Zerbitzua eta Zeberioko andren eskutik. Bertan, informazioa, eskuorriak, larrialdi kasuetarako txartelak, Photocall morea eta esku-

muturrekoak "Gora ligoteo sana" leloagaz bananduko dira. Kartel Lehiaketan eta epai-mahaietan be bardintasun klausulak sartu dira.

Gainera, jaietan gizon eta andren presentzia parekatua bultzatu gura izan dau Batzordeak. Holan, sano esparru maskulinoak diran kiroletan, erakustaldiak egingo dabez andrak. Irati Astondoaren aizkorako lana ikusteko aukerea egongo da domekan 12:00etan eta Larrabetzuko pelotariak izango dira astelehenean, 18:30ean.

Urri lehenengoaren 2an da Sandoñi eguna, eta oindino jai egun asko geratzen jakiez zeberioztarri herriko jaietz disfrutatuko. Jai egitaraua abuztuko zenbakiko 7. orrialdean dago.

ARRATIA

Andren Jabekuntza Eskolako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik

Andrentzako prestakuntza eta parte hartze publikoa handitu eta sendotzeko helburuagaz, 2016ko urtailean Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea sortu zan Arratiako udal, mankomunidade, andra alkarte, talde feminista eta banakako andren artean.

Erredakzioa

2017-2018ko ikasturtea, Jabekuntza Eskolea martxan dauan bigarrena izango da eta daborduko bost lan ildotan batzean diran hamaika ikastarotan emon daiteke izena urri lehenengoaren 4tik aurrera. Ikastaroak doban dira.

Jabekuntza Eskoleak lan ildo barria zabaldu dau ikasturte honetarako; komunikazioa, hain zuzen be. Lan ildo horretako ikastaroak soinutik biaje bat proposatzen dau abotsaren bitartez sormen kolektiboa landuteko. Ikastaro hau zezeilan izango da Igorren.

Beste lan ildoak, andren identidada, osasuna, kultura birdefinituten, feminismoa eta munduko andrak alkartasunean eta alkarlanean dira.

Hamaika ikastaro

Feminismo lan ildoaren barruan, lau ikastaro dagoz. Lehenengo, Feminismoa marrazten, urri bigarrenaren 6 eta 7an izango da Lemoan; Autodefensa ikastaroa 12-17 urte bitarteko neskenentz barriz, zemendiaren 3 eta 4an

Igorren; Mikromatismoak identifikatzen, Diman zemendiaren 16, 23 eta 30ean; eta Autodefensa Feministea, Arantzazun maiatzaren 11 eta 12an.

Osasun arloko ikastaro bi dagoz. Orokorra bata, gorputza ezetu eta osasuna jagoteko. Hau, Artean izango da urri bigarrenaren 20 eta 21ean. Eta sexualidadearen ingurukoa bestea: Tupper sex feministea, hain zuzen be. Bedian, izango da hau abenduaren 15 eta 16an.

Beste bi ikastarok osotuten dabe kultura berdefinitutea helburu daukan lan ildoak. Sexualidadea Euskal Literaturan zelan tratau dan aztertuko dabe partaideak Zeaurin zezeilaren 23 eta 24ean. Eta andrak eta umorearen arteko erlazinoak izango dabe aztergai Lemoan aprilaren 12, 19 eta 26an.

Andren identidadeari jagokonean, ikastaro bakarra egongo da, maitasunaren ingurukoa. Maitasun erromantikoa vs. maitasun askea dauka izena eta Areatzan izango da martiaren 9 eta 10ean.

Urri bigarrenetik maiatzera arte, hilean bitan, Andra migraduen topaguneak jarraituko dau Igorren munduko andren arteko alkartasuna eta alkarlana bultzatzen.

Izen emotea

Arratiako Mankomunitatearen webgunean, udaletxetan eta AUMeko egoitzan emon daiteke izena ikastaroa hasi baino astebete lehenagora arte. Plazak mugatuak dira eta partaideen zerrendak izen emote dataren arabera egingo dira.



IGORRE

Ubidetik Alzustara,
Jubiladuen ibilaldia

Igorreko jubiladuak.

Felipe Barrenetxea

Garagarrilaren 22an, goizeko 09:25ean, hartu genduan Igorren Ubiderako autobusa. 45 bat lagun inguru, apurka-apurka geltokira hurreratzen joan ziran, irribarrea arpegian eta motxilea eta makilea aldean ebezala. Modu horretan geltokira hurreratzeak, zera ekarri eustan gogora: antxinako San Antonioetako Urkiolarra joakerea. Hainbat auzotan behintzat, ermitetako eleiz-portaletatik urtetan zan. Hiru kanpaialdi jotzen ziran ordu erdi bat bitarte zala eta hirugarrenean urtetan ziran, bidean jentea gehiagotuz eta taldea ugarituz joanik.

Ubiden autobusetik jatsi eta hasi zan ibilaldia. Eguraldia be geure alde geunkan, aproposa ibilteko. Laster jausi nintzan kontuan talde honetan oso giro ona egoala, giro alai eta solidarioa alkarregaz. Geure artean gidari lez, Jose Antonio Gumuzio zeanuriztarraren genduan, toki bakotxeko argibideak emonaz eta bere txistuagaz aginduak emoten: geldiuneak egiteko, argazkiak aterateko, hamaiketako egiteko eta abar; azken baten "artalde" bideratzen.

Nahiko bide arlo luze baten, hain entzutetsua dan Erdi Aroko kaltzadatik joan ginan. Bertatik zehar, 1476an, Fernando Katolikoa erregea joan zan Gernikara, Bizkaiko Foruak zin egitera. Garai haretan erregibide hori ia bide bakarra izan zan Arabatik Bilbora joateko; beranduagoak dira, Urduñako bidea eta Durangotik zehar doana. Erdi Aroko kaltza-

dea bada be, XVIII. mendean barrizatu eben.

Bide horretatik ekarten ziran beste gauza batzuen artean, ardaoa eta garia, eta Areatza, Zeanuri eta Ubiden, hain ugari ziran errementerietatik, bide beretik eroaten ziran perrak (herradurak) eta untzeak.

Egin genduan ibilaldiaren datu tekniko guztiak eta zehatzak, taldean joan "Pepe"k emon euskuzan: zenbat denporan egin genduan bidea, ze luzeera eukan, toki bakotxeko kota-altuera eta ibilaldi guztia- ren perfil grafikoa.

Ordu biak inguruan heldu ginan Alzustako txokora. Bere sarreratik, aurreko aldetik, Gorbaiako ikuspegi zorragaria dago, paradisua dirudi, ez diranak be erromantiko bihurtzeko modukoa. Terraza horretan prest eukiezan bazkalaurreko "entremesak" eta jan edanean gengozala, geure artean trikitalari antzeko bat edo... agertu zan. Talde honetan danetarikoa dagozan ezker, Jose Luis Gurtubairen moduko abots indartsudun abeslari onak be bai, erdi soinuari honen akatsak ezkutatu egiten ziran.

Igarten zan antolatzaileen aldetik agiriko eta isileko lan handia egoala eginda: aurrezdiak ibilbidea begiratuta, bezperatik txokora gauzak eroanda, txokoa bera atonduta, eta egunean berean jan- edariak mahaietan banandu eta guzti honek dakarren ostea atondu beharra.

Azken baten, alkartasunean eta alaitasunean, egun pozgarri bat pasau genduan.

ARRATIA

Beldur Barik Lehiaketarako
lanak urri lehenengoaren
11tik aurrera bialdu daitezke

Urri lehenengoaren 11n ipiniko da martxan Beldur Barik programearen edizino barria.

Erredakzioa

Programa hau urtero egiten da gazteak indarkeria matxista prebeniduteko. Beldur Barik Ikus-



Igazko sari banaketa ekitaldia.

entzunezko Lehiaketea 12 eta 26 urte bitarteko gazteak dago zuzenduta eta lanak, lehiaketa orokorrean eta tokiko Lehiaketa hartzean dabe parte. Arratia mailako sariak Igorren bananduko dira zemendiaren 24an. Lehiaketa orokorraren topaketea barriz, Eibarren izango da abenduaren 2an.

Lehiaketea Beldur Barik programearen ekintza nagusietako bat da eta adierazpen artistikoak saritzen ditu. Lanak erakutsi behar dabe zelan neska eta mutilak egiten deuseen aurre desbardintasun egoerai Beldur Barik jarkereagaz; hau da, errespetua, parekidetasuna, askatasuna eta autonomia, alkarkidetzeta eta indarkeria sexistearen bazterketa irmoa adierazoten dabezan jarke- rakaz. Lanak aurkezteko epea urri

IGORRE

Motorzaleen XVI.
Konzentrazioa Arratian

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 2an, motorzaleak topaketea eta bailaran zeharreko ibilbidea egingo dabe, Arratia Motor Taldeak Igorreko Udalaren laguntzeagaz antolatuta. Bazkaria, jolasak eta rock kontzertua ez dira faltauko.

Parte hartzaileak izena, Igorreko Berezi tabernan emon behar dabe goizeko 10:00etan. Izena emoten daben lehenengo 300ak

kamiseta bana izango dabe opari. Izena emon ostean, ibilbideari ekingo deuse eta pintxoak jateko geldialdiak egingo dabez. Helmuga Igorreko eskoletan izango da.

Bazkalostean jolasak egongo dira eta 18:00etan, Roca y Rollo taldearen kontzertua. 20:00etan sari banaketea eta opari zozketea. Opari ugari zozketatuko dira: spa zirkuituak, bazkariak, afariak eta abar.

ARRATIA

Kataluniako
atentaduak
txarresteko
konzentrazioak
egin ziran

Erredakzioa

Abuztuaren 18an, udalak deitutako konzentrazioak egin ebezan Areatzan, Bedian, Lemoan eta Zeanurin Estatu Islamikoak Katalunian egindako atentaduak txarresteko eta biktimai solidaridadea erakusteko. Artean, Herriko Bentak eta errefujiaduak deitu eben konzentrazioa.

Artean, hogeit lagun baino gehiagok adierazo eutsien alkartasuna Kataluniako herriari hainbat hizkuntzatan idatzitako kartelakaz kamino ondoan.

Bediak eta Zeanurik Eudelen deialdiari jarraituz, egin eben elkarretaratzea. Bedian, udal iturrien arabera, 50 persona inguru batu ziran, eta Zeanurin, 40 inguru.

Areatzan eta Lemoan be egin eben konzentrazioa atentaduak txarresteko Udalak deituta. Areatzan ez zan deialdi publikorik egin eta udal ordezkariak batu ziran udaletxe aurrean. Lemoan, hogeit bat lagun batu ziran.

lehenengoaren 11an zabaldu eta zemendiaren 13an zarratuko da. Parte-hartzeko kategoria bi dagoz: 12-17 urte bitartekoak, eta, 18-26 bitartekoak. Igazko edizinoan EAE mailan, 363 lan eta 2.348 gazte aurkeztu ziran.

Sariak

Tokiko Lehiaketa, hau da Arratia mailan, kategoria bakotxean 300 euroko saria egongo da. Aurten, saritutako lanak zemendiaren 24an ezagutuko dira, Igorren ospatuko dan Beldur Barik Arratia Topaketa. Urtero antolatzen dan topaketa honetan, ikus-entzunezko lanak jai giroan ikusi, sariak banandu eta kopautxoa egoten da. Arratiako epaimahaia, Arratiako Udalen Mankomunitateko ordezkariak, talde feminista eta andra alkarteetako ordezkariak eta Hezkuntza sistemako ordezkari batek osotuko dabe.

Lehiaketa orokorrean, kategoria bakotxeko 500 euroko lehen sari eta 300 euroko aipamen berezi bana bananduko dira. Horrez gainera, 300 euroko herri bozkaketaren bitartez parte-hartze saria eta, ikus-entzunezko ekoizpen onena baloretako 300 euroko saria.

Beldur Barik Emakundek antolatuten dau, Foru Aldundi eta Eudelen babesa eta beste erakunde batzuen laguntzeagaz.

AREATZA

Herri galdeketarako botoak etxez etxe bananduten hasiko dira

Erabakitze Eskubidearen aldeko Areatza Dagigun alkarteak informazio kanpaina abiatu eta botoak etxez etxe bananduten hasiko da urrietan.



Jaietan ipinitako txosnea.

Erredakzioa

Izan be, zemendiaren 5erako antolatuko dabe herri galdeketea Areatzan. Galdeketea itauna, "Euskal estatu burujabe baten hirritarra izan gure dozu?" izango da.

Oraingo hilean, herriko taberna batzuetan, pintura erakusketa ibiltaria egongo da. Zortzi koadro dira guztira, egileak Areatzakoak zein kanpokoak eta horreetako zazpi zozketatu egingo dira urri bigarrenean Gure Esku Dagoren ekitaldi baten.

Areatza Dagigun sortu zanetik, legeak eta galdeketen protokoloak ezartzen dituen pausuak beteteko lanean ibili dira: sinadura bilketea egin, babes datuen agentzian alta emon, Berme Batzordea osotu eta abar. Gainera,

galdeketea antolatzeak dakarzan gastuak aurre egiteko alkatetako egindako pintxoak ipini ebezan salgai plazan jaietan, eta giroa alaitzeko Kantu bat Gara taldekoakaz kantetan ibili ziran.

Botoa zelan emon

Herri galdeketea zemendiaren 5ean izango da eta botoa 09:00etatik 20:00etara emon ahal izango da Dagigun Areatza alkartearen lokalean, Beheko kalean 6-8 zenbakian, plaza ondoan. Areatzan erroldatuta dagozan 16 urtetik gorakoak emon ahal izango dabe botoa.

Botoa aurrez emoteko aukerea be badago: urri bigarrenaren 28 eta 29an, 10:00etatik 14:00etara Dagigun alkartearen lokalean.

IGORRE

Bustinzaren heriotzaren inguruko mahai-ingurua eta erakusketea Kultur Etxean

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 23an, Jose Migel Bustinza igorretarraren heriotzaren 20 urte beteko dira. Hori dala eta, igorretar talde batek eta Egari Zor Fundazioak, ekimen bi antolatu ditue Bustinzaren heriotzaren inguruko egia osoa jakiteko eskubidea aldarrikatzeko.

Urri lehenengoaren 21ean, Atera dezagun egia itzaletik argira. Jose Migel Bustinzaren hilketaren inguruko egia osoa jakin gura dogu erakusketea inaugurauko da Igorreko Kultur Etxean 19:30ean eta urri bigarrenaren 6ra arte egongo da ikusgai. Erakusketa, 1997ko urrietan argitaratutako hemerrotekako materialak erakutsiko dira. Baita, Jose Migel Bustinzaren familiak emondako argazki eta bestelakoak be. Erakusketea egiteko Euskal Memoriaren datu basea be erabili dabe antolatzaileak.

Urri lehenengoaren 22an barriz, mahai-ingurua egongo da Kultur Etxean 19:00etan. Han, familiako kideak, Jone Goirizelaia kasua eroan eban abogaduak, eta Egari Zor Fundazinoako egongo dira. "Jone Goirizelaia, ikerketaren barri emongo dau, bere egunean aurkeztu zan bersino ofizialak eukazan puntu baltzak nabarmenduz. Batez be, 1997an egindako epaiketearen barri emongo dau. Ordutik hona, ez da aurrerapausu handirik emon" azaldu deusie BEGITURI antolatzaileak.

Ekimen honeekaz, bersino ofizialaren inguruko puntu baltzak erakusten eta zabaltzen ahaleginduko dira. Izan be, erakusketearen izenburuak dinoan moduan "Egia itzaletik argitara ateratzea" da asmoa.

Egia jakiteko eskubidea

Egia, aitortza, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea aldarrikatzen dabez familiak eta Egari Zor Fundazinoako. Jose Migel Bustinza eta Gaizka Gaztelumendi 1997ko urri lehenengoaren 23tik 24rako gauean hil ziran Bilboko Amistak kaleko polizia operazio baten, bersino ofizialaren arabera, ETAKo kideen eta Goardia Zibilaren arteko tiroketan. Dana dala, bersino honek zalantzak sortu dauz hasikeratik.

"Herri honetan izan diran giza eskubideen urraketa askoren inguruko egia be ez dakigu gehienetan. Egia, aitortza, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea dira memoria osasuntsurako oinarri eta kasu askotan egiaren bila jarraituten dogu. Lan handia dago egiteko, hainbat urrats egin diran arren. Adibidez, Paco Etxeberria forentse ezagunak

zuzendutako Jauriaritzaren txosten batek tortura zenbakitan ipini dau: 1960tik 2013ra egondako 4.009 kasu jasoz".



IGORRE

Pilar Gurtubaik ehun urte bete ditu

Ainhoa Duñabeitia

Pilar Gurtubai igorretarrak 100 urte bete dauz uda honetan, abuztuaren 19an, eta ezin bestela izan, esperientzia asko bizi eta jakinduria handia pilatu dau urte horreetan guztietan.

Jaio zanean Europa Lehen Mundu Gerran egoan murgilditua. Gero,

etxetik hurrago, 1936ko Espainiako Gerra Zibila be bizi izan eban, eta mende oso bateko gertakizun eta aldaketen lekuko da.

Familia bat be sortu dau Pilarrek: 3 seme-alaben ama da, 3 gazteren amama eta beste 3 umeren birramama.

Zorionak Pilar, eta urte askotarako!



Pilar Gurtubai familiakoakaz ehun urteak ospatuten.

Zugaitik BEGITUTen dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Pelig. Menditsa, s. 48530 LEMOA, Bakais
Tel. 609 480 839 / 609 200 717

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizarra egin eta buzkunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea,
Iraila osoa.
Tlfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa
E.P.A.
IGORRE: Elexalde 22, Eleizako lokaletan

ARRATIA ETA EROTISMOA

Euskal literatura erotikokoak habia egin dau Arratian

Dimako Kalenturak eta Basauriko Euskarabila alkartearen ipuin erotikoen lehiaketak gurean itxitako lorratza sakona da.

Alvaro Rabelli

Kasualitatea izan ala ez, begi kolpe baten konturatzen gara asko izan dirala ipuin erotikoen lehiaketatik pasa izan diran arratiarrak edota orain diran Arratiako bizilagunak. Holan, Igor Estankona, Julen Gabiria, Alvaro Rabelli, Rafa Ugalde, Janire Lopez, Zefe Ziarrusta, Maite Arrizabalaga lan erotikoen egileak doguz. Horreetako batzuk aspaldi pasa ziran Basauriko Euskarabila alkarteak 1996. urtetik 2012ra arte antolatutako Ipuin Erotikoen Lehiaketatik. Urte horreetan, hain zuzen be, Igor Estakona, Julen Gabiria, Alvaro Rabelli, Rafa Ugalde eta Janire Lopezen ipuinak sariak jaso ebezan aitatutako lehiaketan. Gaur Txalaparta argitaletxeak eginiko hainbat bildumatan topau geinkez euren ipuinak, *Bero hezeak* (2001), *Basa gurina* (2006) eta *Esku hori!!* (2012) bildumetan alegia. Rafa Ugalderen *Relax* (2007) bilduma be ezin dogu aitzu. Beste batzuk, Zefe Ziarrusta eta Maite Arrizabalagaren lanak, ondino argitaratu bakoak, azken urteotan Diman antolatutako Dimako Kalenturak Lehiaketari jagokoz. Nabarmenezkoa da Rafa Ugalde dimoztarrak ipuin lehiaketa bien artean egindako zubilana. Ipuin erotikokoak idazle honeetako batzuen ibilbidean anekdotikoak izan daitezkezen arren, batzuentzat lehenengo lanak izan dira, horreekaz urten dabe euskal literaturearen plazara. Eta ez honeek bakarrik, ugari dira gaur ezagunak diran euskal idazle gazteak horreetatik pasa izan diranak, lehiaketok euki daben arrakasta eta eraginaren seinale. Esan geinke euskal literatura erotikoa bertara etorri dala gure artean sustraitzeko asmoz.



Rafa Ugalde dimoztarrak, Euskarabila alkarteak antolatutako Ipuin Erotikoen Lehiaketa eta Dimako Kalenturak Lehiaketaren arteko zubilana egin dau

joerea eukiten dau. Izan be, literatura erotikokoak helburu estetikoak eukiteaz gain -literatura guztiak daukan lez- sexu irakaspena be emon gura izan dau. Jendartearen sexu portaera eta fantasien erakuslea da. Areago, jendarteak sexuagaz zer hartu-emon daukan behin eta barrero erakusten deusku. Horretan, ekarri daigun gogorra literatura erotikokoak euki izan dauan erantzuna, zentsurarena esaterako. Genero hau zerbait ezaugarritatzen badau, gure jendartearen jaso izan dauan zentsura da. Gurean, nagusi, kristau moralkeriak eragindako zentsura, historian mota honetako liburuak salatu, zigortu eta debekatu izan dituana. Horregaitik, literatura erotikokoak be, sasoiak sasoi, kritika eta probokazinarako bidea hartu izan dau, jendartearen hipokresiarako kontrako kritikea. Eta ez gitxitan erreibindikazino kutsua emon barik. Beraz, ondino badira goian aitatutako liburuak pirueta sexualakaz harrizten diranak, zerbait barria balitz lez.

Baina, barritik ez dauka ezer, arean be ez. Literatura erotikoa literatura bera bezain zaharra da. Beti euki izan dogu sensualitatea, amodioa eta barruko sentimendu guztiak islatzeko beharizana. Gaurko *Fifty Shades of Grey* liburuak irakurleak bai harrutuko liriteke Bibliako *Kanturik ederrena*, Aristofanes-en *Lisitrata*, Ovidioren *Amodio kantak*, Boccaccioren *Decameron*, Sadeko Markesaren *Filosofia apaingelan*, Leopold Von Sacher-Masoch-en *Venus im Pelz*, D.H. Lawrence-en *Lady Chatterley's lover* eta Dominique Aury-ren *Histoire d'O* liburuak irakurriko balebez. *Kamasutra* eta *Mila eta gau bat gehiago* aitzu barik.

laster, alkondara hautsi dio mihia iltze baten gisa sartuz ahoan". (Igor Estankona, *Eros eta triangelu kontzentrikoak*).

"Markelek pitto-muturra sentitu zuen galtzen barrena puzten. Lehenengoan zirrara arin batek egin zion ihes potroetan zehar, barrabilen atzetik hasita aurrerantz, txindurriak bailiran". (Julen Gabiria, *Estrategia militarra*).

"Hogeita bi urte nituen ezkondu nintzenez, orain daukanaren erdia ere ez. Eta lehenengo gau hartan ordura arte bekatu zena sakramentu bihurtu zen Juan gainera etorri zitaidanean". (Rafa Ugalde, *Berriro deituko dizut*).

Literatura erotikoa, jendartearen isla

E. L. James idazlearen *Fifty Shades of Grey* (2011) trilogia ospetsua irakurten dauan irakurleak pentsau leike gaurko literatura erotikoa liburu horretara baino ez dala mugatzen. Egia esan, belaunaldi bakotzak bere sexualitatearen isla deskubriduteko



"Paolok telefono kabina batera sartu du Giuseppe, Londoneko kabina gorri horietako batera eta, atea itxi bezain

"Zitada mingarri bat nabaritu dut bat-batean belarri bien ondoan, matrailezur bien elkargunean eta kraska leun bat igarri dut hezurretan. Zakila ahotik atera eta mingainaz baliatu naiz, hezurrei atsedeen emateko". (Janire Lopez, Arkadiako metamorfosiak).

"Orrialdeen gainean makurtu nintzen, Hectorri ipurdia modurik onenean eskaintzeko egokieran. Bitartean, zintzilik gelditu zitzaidan zakilak egunkariko nekrologikoak zituenean jomuga". (Alvaro Rabelli, Borreroaren gutziak).

Euskal literatura erotikoa

Euskal literatureari be, bere txikitasunean, ez jakoz falta genero honetako adibideak. Sano ezagunak doguz Bernat Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* (1545) euskerazko lehenengo liburuan agertutako olerki erotikoa. Edota, jada XX. mendean Jon Miranderen lanak. Baina benetako eztanda azken hamarkadetan gertatu da. Aitor Aranak 1994an argitaratu eban *Ipuin lizunak* lanari beste askok jarraitu izan deusie, batez be Txalaparta argitaletxearen bildumakoak. Horrek, generoaren garapena ez eze, irakurle eta idazle barriak be ekarri dauz gure literaturara, *Orgasmus* (2011) bilduman batzean diran modukoak. Generoaren bilakaerea be agerikoa da. Gaur erotismoaren agerpen hutsetik harago, nagusi da sexu-

generoaren gaineko ikuspuntua emotea. Eta literatura erotikoren mugak gaindituz erotismoa bera bestelango lanetara be zabaldu da, nabarmen-nabarmen idazle andrazkoen literaturan ikusi daikegun lez.

"Atzamarren taktua eten eta han jausi jatan lurrera zigarro mutxikina, nire planeta aurrean nuenaren ikusmiran urtu zan, gorputzean eztanda egin eustan emozioak, liluraren zurrunbiloan ez ezik, bapateko galerna, enbataren menpe utzi ninduen". (Zefe Ziarrusta, Haizearen orrazia).

"Ebaren arnasa bizkortzen hasi zen bat-batean. Begiak itxi eta birrikak airez bete zituenean, apurka-apurka lasaitzen saiatzeko; ezin ordea". (Maite Arrizabalaga, Ebaren aluke-riak).

Eta etorkizunean?

Emoten dau genero honek Arratian egin dauala habia, natural natural egin be, eta modu batean edo bestean segida eukiko daua. Esan lez, azpiegitura euki badogu (egileak, epai-mahaikideak, lehiaketak, irakurleak...) euskal literatura erotikoa zabaltzen segiduteko. Literatureari eta euskereari berari hemetik bertatik Euskal Herri osora egindako ekarpena da. Beraz, oraingoz ezer aurreratzeko lar goiz izan arren, baleiteke datozan hilabeteetan horren inguruko egitasmo barrien albiste emotea.



Gaur erotismoaren agerpen hutsetik harago, nagusi da sexu-generoaren gaineko ikuspuntua emotea

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

Igorreko merkatarien eguna
2017ko Irailaren 9an
AME-k antolatuta

Institutu ondoko zelaian
Poniak

Polikiroldegi aurrean
TXUTXU TRENA

PINTXOAK
dohainik

Lotxo erromeria

ame
Euskadi, asgaitzen, hiea eman
ELKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
#igorrenerosi

**Zeure
burua
ezetutera
emoteko
iragarri
zaitez
BEGITUN**



begitu
amata ubide zerbait

17/18

IKASTURTEA

Matrikula epea ZABALIK

ONGI ETORRI
euskarara



UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara klaseak

www.udaleuskaltegiak.eus

Matrikula zabalik

Izena emateko epea irailaren 1etik 22ra

EUSKALDUNTZE IKASTAROAK

Astelehenetik ostegunera: egunean 2,50 ordu

HAINBAT AUKERA

Hizkuntza Eskakizunak prestatzeko ikastaro bereziak

2, 3 edo 5 egun astean, 1,50 edo 2,50 ordukoak

TRINKOAK

HABEren mailak, EGA, Hizkuntza Eskakizunak

Lauhilabetekoak: egunean 4 ordu

AUTOIKASKUNTZA

On-line ikastaroak

TALDE BEREZIAK: merkatariak, gurasoak, etorkinak,
ume-zaintzaileak

Nagusiak: 10 € matrikula, astean bi egun

Langabetuak: 20 € matrikula

DESKONTUAK ETA BEKAK

Irailaren 1. hamabostaldian matrikulatuz gero, %25eko deskontua

Ikasturteko asistentzia %90ekoa izanez gero, matrikularen %50
berreskuratzen da

Ikasturteko matrikula-ordutegia

Goizez : 10:00 - 13:30

Arratsaldez : 16:00 - 19:00

GALDAKAKO UDAL EUSKALTEGIA

Muguru 6 - 48960 Galdakao

T. 944 566 174 Fax: 944 571 413

euskaltegia@galdakao.net






V

**Argazki lehiaketeta:
bialdu zure argazkiak begitu@topagunea.com
helbidera hilaren 25a baino lehenago.**

Sari ederra eroan zeinke!!



ARGANKI-HEKETE



Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua begitu@topagunea.com
helbidera neurria adierazoz

ARRATIAKO IBAIERTZETATIK VIII. MARTXA ZEANURI - BEDIA

IRAILAK 17, domeka

LUZEERA: 20 Km inguru
IRAUPENA: 4 ordu
ZAILTASUNA: Erreza

URTEERA: Zeanuriko plazatik
8:30 etan.

- Autobusa egongo da Zeanurira joateko.
- 8:00etan Bediatik herriz herri Zeanurira (Dimatik ere)
- Amaitzean (14:00ak aldera) Bediatik herriz herri buelta Zeanurira.

-  Hasiera
-  Helmuga / Luntxa

**Arratiako Udalen
Mankomunitateak antolatuta**

MUGIKORTASUNARENEUROPAKOASTEA
MUGIKORTASUN GARBIA, PARTEKATUA ETA ADIMENDUNA
2017ko, IRAILAREN 16tik-22ra



Informazio gehiago 665 725 410 telefonoan
Ez da apuntatu behar

HERRI KIROLAK

Tubi Euskadiko Lasto-
jasotze txapelkun

Bustinza eta Loiola.

txapelketea, kirol honetako zazpi-garren txapela lortuz. Markea be berak ezarritakoa da, 25 jasoaldi, eta marka be bardindu egin eban Laudion.

Bigarren, Jon Loiolak egin eban. Loiola Bizkaiko Txapelketa da eta 22 jasoalditan dauka bere marka.

Hurrengo zitea, urri lehenengoaren 9an Saran jokatu da diran Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol Txapelketea izango da.

Irati Astondoa Europako Segatxapelketan

Europako Segatxapelketea jokatuzan abuztuaren 18tik 20ra, Suitzako Ingenbohl eta Brunnen herrietan eta han egon zan Irati Astondoa zeanuriztarra. Taularen erdian geratu zan, 16. eginda, 30 segalariren artean.

Talde moduan Euskal Herriko selekzioak inoz baino emoitza hobeak lortu dauz, 3. eginda gizonetzko zein andrazkoetan. Jexux Mari Goenaga errezildarrak lortu eban emoitzarik onena, bigarrena izan zan eta.

Erredakzioa

Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarrak eskuratu eban Euskadiko Lasto-jasotze txapela abuztuaren 16an Laudion, 25 jasoaldi eginda. Bigarren, beste dimoztarrak egin eban Jon Loiolak. Honek fardoa 21 bider jaso eban 2 minutuko denporan.

Faboritoak ez eban hutsik egin. Igaz lortutako txapela defendiduten joan zan eta errez irabazi eban

MENDIA

Ibilbide bi Areatzako Mendi Martxan

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 9an izango da Areatzako Mendi Martxea eta igazko moduan ibilbide bi egongo dira aukeran. Luzeak 28 km. ditu eta 1.700 metroko desnibela eta laburrak 19 km. eta 900 metroko desnibela. Urtekerea plazan izango da 08:00retan.

Martxea, aurten barriro homologazinoa lortu dauan PR-B19 bidetik joango da. Ibilbide luzea, Upo, Mendigana, Hirumugarrieta, Areatzako Neberoa, Arraba, Pagomakurre eta Karkabitxuetatik pasauko da plazan amaitu arte. Laburrak, antzeko ibilbidea dauka Upoko tontorra kenduta. Hau da, ibiltariak plazatik urten eta Mendigana joango dira, Hirumugarrieta, Areatzako Neberoa, Arraba, Pagomakurre, Karkabitxuetatik eta Elorribira.

Hilaren 7ra arte emon daiteke izena Areatzako Mendi Martxearen webgunean edo egunean bertan urtekera puntuan 07:15etik aurrera. Martxea amaitutakoan parrilladea eta opariak egongo dira ibiltarientzat.



Areatzako Mendi Martxako kartela.

AZKOREA

Aitzol Atutxak Urrezko
Kopa irabazi dau Donostian

Erredakzioa

Abuztuaren 15ean, Aitzol Atutxa azkolari dimoztarrak bere hirugarren Urrezko Kopa irabazi eban Donostian, bigarrena izan zan Mikel Larrañagari minutu bat eta

15 segundoko aldea aterata.

Urrezko Kopa Donostiako Aste Nagusian jokatuten da, Trinitate plazan. Azkolari bakotzak 54 ontzako 14 enbor moztu eban. Atutxa 11.k lana 31 minutu eta 54 segundotan egin eban.

Probako markarik onena Donato Larretxeak dauka 27m 17segundotan, orain dala 22 urte egindakoa.

Ramon Latasa Sarian bigarren

Abuztuaren 12an, Sunbillan, Ramon Latasa saria jokatu zan. Bertan Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertza beste 4 bikoteren kontra neurtu ziran. Saria Iker Vicente eta Ruben Saralegik eroan eban. Atutxa eta Mugertzak bigarren egin eban.



Aitzol Atutxa.

Artxiboko irudia.

BOLA JOKOA

Danel Beitia
mutikoa
Zeanuriko
bolaririk onena

Jon Urutxurtu

Danel Beitia 14 urteko mutikoak eskuratu dau 2017ko Zeanuriko Bola Txapelketea. Finala San Lontzon jokatu zan, abuztuaren 11n, San Lontzo bigarrenean, eta bertan urtean zehar auzuneetan jokatutako hiru txapelketetako -Altzuakoa, San

Justakoa eta San Lontzo bertakoa-lehen lau sailkatuak hartu eban parte: guztira hamabi bolarik. Beitiak "gerrea" (desenpatea) jokatu behar izan eban beste lau bolarigaz, eta hemen lortu eban 2017ko txapela. Bigarren eta hirugarren lekuetan Maximo Beitia -Danelen osabea- eta Joseba Gortazar sailkatu ziran.

Zeanuriko bolarien hurrengo zitea Alzustan izango da urri lehenengoaren 30ean, zapatuan, San Migel jaietako egitarauaren barruan, eta kofradien arteko taldekako txapelketea jokatuko da bertan; herria osotuten daben zazpi kofradietako ordezkariak hartuko dabe parte, talde bakotza lau bolarik osotuta.



Danel Beitia bolela jaurtitzen.

MENDIA

Zeanuriko ermitak ezetuteko martxeak 30 urte beteko ditu aurten

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 2rako antolatu dau Joko Alai alkarteak XXX. Ermiten Mendi Martxea. Guztira, hogeit hamar ermita dagoz Zeanurin, baina ibilbide osoa egiten dabenak hemezortzi ingurutik igaroko dira, Egiriñako (Gorbeia) Edurretako Amarena kanpoan geratzen da eta. Zeanuriko ermitak eta euren arteko bideak erakusten dituan marxa honek 30 urte beteko ditu aurten.

Urtekeria herriko plazan izango da, 07:30ean. Lau ibilbide egongo dira: luzeak 35 km. izango ditu; ertainak 24 km.; laburrak 15 km., eta laugarren bat egongo da 13,5 km.koa, umeakaz egiteko modukoa. Atzen honetako partaideak 09:00etan abiatuko dira plazatik.

Urtekeria plazan izango da, goizeko 07:30ean. Aurten ibilbideak igazkoaren kontrako norabidea jarraituko dau, hau da, urtekeratik

Eleizondo parrokiara zuzendu beharrez, plazako San Antonio eta San Isidro ermiten aurretik igaroko osten, Uriberantza zuzenduko dira eta amaierarako geratuko dira igaz hasieran egozan Andra Mari parrokia eta Piedadea ermitea.

Izena egun berean 06:45etik aurrera emon daiteke Ibarreta frontoian.



MENDIA

Zeanuriko III. Mendi Duatloia urri lehenengoaren 16an

Erredakzioa

Urri lehenengoko lehenengo asteburuan Igartzan hasikerea emon ostean, eta Ibarra lupeztak zapaldu eta gero, Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuitoa (EHMDZ) Zeanurira helduko da.

Aurtengo edizinoak barrikuntza edo nobedade bat izango dau. Duatloia erreleboka, binaka, egin ahal izango da. Hau da, batek ariniketako zatia egin leike eta besteak bizikletakoa.

Proba herrikoia antolatu dau Zeanuriko Joko Alai alkarteak hilaren 16rako, gura dauanak egin ahal izateko. Zeanuriko Plazan galapan hasi eta San Juanetik San Justora igaroko osten Plazara bajatuko dira kirolariak 7,32 km. geroago. Han bizikletak hartu eta erruda biren gainean Soloetatik gora joango dira. Inguru zoragarri horretan ibili eta gero Alzustatik Plazara hurreratuko

dira 16,9 km. eginda. Azkenengo korrikaldia, 1,22 km.koa, herri ingurutik egingo dabe.

Zapatu horretarako, egun osoko jaia antolatu dau Joko Alai. Izan be, goizean, 11:00etan, umeak egingo dabe duatloia. 12:00etatik 14:00ak artean, bazkaltzeko aukerea eukiko dau halan gura dauanak, eta 16:00etan helduen duatloiak urtengo dau.

Parte hartu gura dabenak, kirol-

probak.com webgunean emon behar dabe izena, hilaren 15era arte.

Kirol herrikoia

2010ean EHMDZ martxan ipini zanean helburu batzuk zehaztu ebazan; mendi duatloia bultzatzea, kirol herrikoia ate bat zabaldutea, naturaganako lotura eta errespetoa landutea, auzolana indartzea, gazteengan kirola sustatzea eta herri "txiki" eta auzoak ezetuten emotea. Aurtengo edizinoan proba erreleboka egin ahal izatearen aukerea hau guztiagaz lotuta doa.

Auzolanean antolatu dau proba hau Joko Alai alkarteak, Zeanuriko Udalaren babesagaz eta herriko merkatarien zein herritarren laguntasunagaz.



Arratia
ubide eta zeberiko
euskerea
eta kulturearen alde

Hamabostero
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkartea,
Berrito Plaza 21, 70172 Artea

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu
entzuteko mundua

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan



IKASTAROAK

Izena emon daiteke udalak antolatutako 2017-2018 ikasturterako ikastaroetan



Bedian ez errolatuak) artekoak dira.

Dima

Diman Udalak antolatutako ikastaroak abendura artekoak dira. Yoga, Eskulanak, Pilates, Txi kung, Entrenamendu funtzionala, Gimnasia hipopresiboa, Zunba1 eta Zunba 2 ikastaroetan izena emon daiteke urri lehenengoaren 1era arte, udalletean. Taldeak aurrera eroateko gitienez 8 persona apuntau behar dira eta gehienez 12. Leku kopurua baino persona gehiagok emoten badabe izena, zozketea egingo da eskatzaile guztien artean.

Prezioak, 70 eta 100 euro bitartean dagoz Diman errolatuentzat eta 90 eta 140 bitartean ez errolatuentzat.

Lemoa

Lemoan be, ikasturte osorako zein zati baterako ikastaro eta tailerrak antolatu ditue. Ikasturte osorako, Eskulan, Informatika, eta Euskera ikastaroak dagoz. Eskulan eta Informatika ikastaroetan izena urri lehenengoaren 4tik 15era emon behar da Udaleko Kultura Zerbitzuan. Euskera ikastaroetarako hilaren 22ra arte luzatuko da epea. Prezioai jago kienean, Lemoan errolatuak eta langabetu eta ikasleak merkeago daukiez ikastaro eta tailerrok.

Sukaldaritza ikastaroa, josteta ikastaroa eta arteterapia be eskeintzen ditu Lemoako Udalak. "Janari azkar osasuntsua", "Moda zuk zeuk egin" eta gorputzaren adierazpena eta osasuna jagoten ikasiko dabe bertan partaideak. Izena emoteko epea urri lehenengoaren 27ra arte izango da.

Aprilean, Landare aromatikoaren laborantza eta Argazkigintza ikastaroak be egongo dira. Horreetan izena emoteko epea martian zabalduko da.

Erredakzioa

Urtero lez, ikastaro eta tailer eskeintza zabala egin dabe Arratiako udalak 2017-2018 ikasturterako. Hona, Bedia, Dima eta Lemoako ikastaroak dakarguz. Guztira ia 30 ikastaro.

Bedia

Urri bigarrenetik maiatzaren amaierera edo bagilera arte, Egurra lantzen, Yoga, Pilates, Zunba, Korru jantzak, Umeentzako eskal jantzak, Ingelesaren mintza praktika, Euskera, Jantza moderna, Running eta Taldean oinez ibilteko aukerea dago. Eskulan eta Xake ikastaroak abendura arte izango dira.

Izena urri lehenengoaren 4tik 21era emon daieke Bedian errolatutakoak Liburutegian 16:30etik 19:30era. Bedian errolatuta ez dagozanak, urri lehenengoaren 22tik aurrera apuntau ahal izango dira lekua geratu ezker.

Taldean ibilteko aukerea debaldekoa da eta prezioak, ikasturte osoko ikastaroetan, 10 eurotik (Running, Bedian errolatuak) 180 euro arte (Egurra lantzen,

KONTZERTUAK

Dimetal Fest jaialdia sendotzeko apustua egin dau antolakuntzak

Urri lehenengoaren 16an, Dimetal Fest metal jaialdiaren hirugarren edizioa izango da. Barriztu ezean jaialdiak "hil" egiten dirala eretxita, Dimetaleroak, jaialdiaren antolakuntzakoak, "arriskatzea" eta izen handiko talde bat ekartea ebatzi dabe. Hori dala eta, aurten, Su ta Gar egongo da Diman. Ebatzi honek aurrekontua %40 inguru handitzea ekarri dau eta dirua aterateko, txosna bat ipiniko dabe.

Erredakzioa

Jaialdia, irabazi asmo bakoa eta autogestionaua da. Eta kontzertu guztiak doban dira. Horregaitik, aurreko urteetan herriaren alde tik laguntza handia izan daben arren, oindino laguntza handiago behar izango da hirugarren edizino hau aurrera aterateko "Igazko balantze ekonomikoa 11.000 euro ingurukoa izan zan. Aurten 16.000 ingurukoa izango da. Apustu handia da" dino Ruben Socorro antolakuntzakoak.

Zortzi kontzertu

Arrastiko 18:15etik goizaldeko 02:00ak arte zortzi kontzertu egongo dira agerleku bitan: plazako eszenaleku nagusian eta Abaro Aretan (Gaztetxea). Heavy metal klasikoa egiten dauan Bilboko Evil Seed banda izango da lehenengo Abaro Aretan. Last Days of Eden asturiarren rock sinfonikoaren txandea 19:05ean izango da. Ondoren, Bermeoko Ost talde beteranoagaz heavya euskeraz entzuteko aukerea egongo da. Hurrengo taldea, aspaldi honetan gero eta ezagunagoa dan Gasteizko The Faithless hard rock taldea izango da.

Kontzertua amaitutakoan, eszenaleku nagusian zozketea egingo da eta ondoren, 22:00etan, Su ta Gar Eibarko taldeak joko dau. Su ta Gar heavy metala

euskeraz egin eban lehenengoetako taldea izan zan. Lehenengo kontzertua jo ebanetik 29 urte pasau dira eta 13 disko argitaratu ditu, baina erreferente bat izaten jarraituten dau euskerazko heavy metalean.

Raven's Gate valentziarrak power metal estiloko musikea eskeiniko dabe gero, eta amaitzeko Bartzelonako Drakum bandaren metal bikingoak zarratuko dau jaialdia.

Goizean mahai-ingurua

Iluntze-gauean izango dira kontzertuak, baina Dimetal Fest jaia goizeko 11:00etan hasiko da, Dani Alvarez EITBko kazetariak gidatuko dauan mahai-ingurugaz. Han, Euskal Metalheads-eko Xarles Braden; Izaskun Forcada,

gaur egun musika proiektu askotan parte hartu eta desagertuta dagoan 2 Kate taldekoa, eta Drakum eta Faithless taldeetako partaide bana egongo dira. Mahai-inguruan, beste gai batzuen artan, Hheavy musikako kantuen letrak izango ditue eztabaidagai. Bitartean, umeentzako jarduerak egongo dira herriko plazan.

Mahai-inguruaren ostean metal poteoak girotuko dau herria eta Harriti giza proba taldeak erakustaldia egingo dau frontoi txikian. Bazkaria 15:00etan izango da eta bazkalostean, kuadrillak neurtuko dira Herri Metal Olinpiadetan. "Dibertigarria eta koloretsua izango da", dino Socorrok.

18:15etik 20:00etara, iluntzeko kontzertuakaz batera, umeentzako magoa egongo da herriko plazan.

Autobusak Bilbo eta Gasteizetik

Jaialdira ahalik eta jente gehien hurreratu daiten, autobusak ipiniko ditu antolakuntzak. Bilbotik Dimara 14:00etan eta Dimatik Bilbora 05:00etan. Joan-etorria autobusean 13 euro izango da, autobusa gehi bazkaria 25 euro eta Dimatik Bilbora buelta bakarrik, 8 euro. Gainera garraio publikoa be badago eta taxi be egongo da.

Dimako Udalak akanpetako eta atsedena hartzeako lekua ipiniko dau.



Olaetxe
Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentilen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA • SINTASOLA • PAPEREA
Elexalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 64 62 - 908 864 018

Kili~Kili
Anjoa eta Puertukoak
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 81

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

ugatxa
talentia
Ugarana kalea, 8
48141 Dima
T. 946 129 460

izkaifisios
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igorre
94 631 55 08
igorre@izkaifisios.com
ANDRA MARI KLINIKEA
Fontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@izkaifisios.com

TRIKITIXEA

Zeanuriztarrak laugarren Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketan

Erredakzioa

Eneko Arbeo azpeitiarra eta Mireia Ibabe bergararra nagusitu ziran Euskadiko Trikitilari Gazteen XXXVII. Txapelketan. Sei bikote neurtu ziran finalean, Zeanuriko Batirtze Mendia eta Iker Ibarrondok osotutakoa tartean. Zeanuriztarrak

laugarren egin eben.

Pozik geratu ziran esperientziagaz, egindako lanagaz eta publikoaren erantzunagaz. "Jenteak oso ondo jo genduala esan euskun eta gu oso pozik urten ginan" eta datorren urtean be parte hartu gura dabela azaldu deutso Batirtze Mendiak BEGITURI.



Mendia eta Ibarrondo saria jasoten.

LIBURUA

Arantzazuko hiru auzunetako historia Isaak Atutxak kaleratutako liburuan

Erredakzioa

Arantzazu: nor/zer... non. Historia baterako materialak (I) izenburuko liburua kaleratu dau Isaak Atutxa-Kaudalategi Etxebarria arantzazutarrak. Bertan, 1500etik 1900 arteko Albitzu, Argiñao eta Zalbide auzoen historia jasoten da. Liburuaren aurkezpena urri lehenengoaren 15ean, 19:30ean, izango da Arantzazuko Udal lokaletan.

Isaak Atutxak, 1996an, *Arantzazu zaharra orainaldi* liburua argitaratu eban. Han, 1900 ingurutik 1996ra Arantzazuko etxe eta personak aurkezten ebazan, "eta orduan bururatu jatan, posiblea zala ikerketa horretan atzerantza egitea" azaldu deutso BEGITURI. Holan, oraingo abuztuan kaleratutako liburuan, aurkitutako daturik zaharrenetatik hasita, XX. mendera artekoak jaso ditu. Horretarako, beste batzuen artean, Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibo Historikoa,

Derioko Bizkaiko Eleiz Agiritegia edo Artxiboa, Arantzazuko Udaleko datuak, Bizkaiko Artxibo Historikoko Probintziala eta Jabego Erregistroa arakatu ditu egileak.

Albitzu, Argiñao eta Zalbide
Lehenengo dokumentuak 1500



urtearen inguruak dira eta liburu bakar baten dana ezin zala jaso eretxita, herria lau aldetan zatitutea ebatzi eban: Arantzazugoiti, Zelaia, Olarra eta Zalbide deitu ebazan aldeetan, hain zuzen be. Lehenengo tomo honek Zalbide dauka aztergai eta Albitzu, Argiñao eta Zalbide auzuneak biltzean ditu. "Albitzu 2004ra arte Arantzazu izan da. Gaur Zeberio da, baina ez neban Albitzu alde batera eta aitzuta itxi gura. Albitzu ondoan Argiñao dago eta Argiñao ondoan Zalbide. Hor ikusi neban aztertzeko eremu bat izan eiteke. Eta hortik hastea ebatzi neban. Beranduago etorriko dira besteak" azaldu dau Atutxak.

Auzune bakotzeko baserriak, lurrak, albiste historikoa eta genealogia jasoten ditu liburua. Toponimia be landuten dau zerrenda eta mapen bitartez, eta eranskinetan, interes berezia daukien hainbat dokumenturen transkribapenak biltzean ditu.

JAIK

Erromeriak eta antzerkia ermita inguruetan

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 2an, Oban eta Lemoatxeko San Antolin ermitearen inguruan ospatuko dabe San Antolin eguna. Oban, astegoiaren osoa hartuko dau jaiak eta antzerkia, Bola Txapelketea, auzo bazkaria eta beste ekintza asko antolatatu ditue auzokoak. Lemoatarrak barriz, Baba Lehiaketea eta erromeria antolatatu ditue San Antolin ermitearen inguruan.

Hamabostaldi honetan, San Antolin eta urri lehenengoaren 8ko Andra Mari eguna dira gehien

ospatuten diran jaiak Arratiako auzuneetan. Elizondon Andra Mari eguna ospatuko dabe lemoatarrak.

Sainduniak Oba (Dima)

Urri lehenengoak 1, barikua
20:00etan, txupina eta jaien hasikerea.

Urri lehenengoak 2, zapatua

09:30ean, Dima-Oba bizikleta igoera.

12:30ean, mezea eta ostein po-tea.

19:30ean, antzerkia *Itsasontzi baten*. Itsasontziz biaketako erropa egokia eroatea eskatzen da.

20:30ean, txixi-burruntzia.

21:00etan, Bola Txapelketea.

Urri lehenengoak 3, domekea

11:30ean, Nordic Walking Dimatik Obara.

12:00etan, krosa.

13:00etan, mezea.

14:30ean, auzo bazkaria.

17:00etan, kantaldia.

19:00etan, txokolatea eta jaien amaieria.

San Antolin jaiak Lemoatx (Lemoa)

Urri lehenengoak 2, zapatua

12:00etan, mezea eta barauskaria.

14:00etan, Baba Lehiaketea.

17:00etan, erromeria Jokaldi tal-

deagaz.

Autobus zerbitzua egongo da 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Andra Mari jaiak Elizondo (Lemoa)

Urri lehenengoak 8, barikua

12:30ean, mezea.

17:00etan, haurrentzako jolas eta tailerrak.

19:00etan, Zeani Antzerki Taldea-

ren antzezlanak.

20:30ean, poteo musikatua Areatzako BatucAKKB-gaz.

Urri lehenengoak 9, zapatua

13:00etan, poteo musikatua Kodigo tabernatik.

15:00etan, bertso-bazkaria. Bertsolariak: Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal.

18:30ean, poteo musikatua EINGO Kantan eta Dantzan taldeagaz.



Oraindik Urri lehenengoan

Gure

irastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



AGENDEA

URRI LEHENENGOAK 1
AREATZA

Corbeako Gurutzea Peña Athletic Club-ak antolatutako hilaren 16ko Gorbeia igoerara izena emoteko epea zabalik. Emon izena 609 486 722 (Nino) edo 691 529 748 (Iker) telefonoetan.

DIMA

Udal ikastaroetan izena emoteko azken eguna. Udaletxean.

19:30ean, Etxean gure doguz-ek antolatutako lehenengo barikuko kontzentrazioa plazan.

Obako jaiak. 20:00etan, txupina eta jaien hasikerea.

ZEBERIO

Jaiak. 11:30etik 14:30era, umeen Parkea. Puzgarriak; 13:00etatik 15:00etara, kalejirea herriko trikitilari gazteak; 18:00etan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en *Tipi-tapa Korrika* ikuskizuna; 19:30ean, Elektro Txufla banda; 23:00etan, erromeria: zeltiar musika, Jonnytxar eta Euskelga.

URRI LEHENENGOAK 2
DIMA

09:30ean, Dima-Oba bizikleta igoera; 12:30ean, mezea eta ostean poteoa; 19:30ean, antzerkia *Itsasontzi baten*; 20:30ean, txiki-burruntzia; 21:00etan, Bola Txapelketa. Oban.

IGORRE

Arratia MT-ren XVI. Motor Kontzentrazioa. 10:00etan, izen emotea Berezi tabernan; 11:15ean, Arratiatik ibilbidea pintxoak jateko geldialdiak eginez; 13:30ean, helmuga eskoletan; 14:30ean, bazkaria, ostean jolasak; 18:00etan, Roca y Rollo taldearen kontzertua; 20:00etan, sari banaketa eta opari zozketa.

LEMOA

San Antolin Eguna. 12:00etan, mezea eta barauskarria; 14:00etan, Baba Lehiaketa; 17:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz San Antolinen (Lemoax). Autobus zerbitzua egongo da 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

ZEANURI

06:45ean, XXX. Ermiten Mendi Martxan izen emotea Ibarreta frontoian. 07:30ean, ermiten mendi martxako ibilbide luze, ertain eta laburra egiteko urtekera plazatik. 09:00etan, 13,5 km.ko ibilbidea egiteko urtekera.

ZEBERIO

11:30ean, txirindulari martxa umeentzat. Ermitabarri-Ugao-Zeberioko plaza. Alkartzeko eta ibilbide osoa egiteko Ermitabarrin 11:30ean, edo Ugaon

12:00etan. Aukerea dago edozein lekutan txirindulari martxan sartzeako. Derrigorrezkoa da kaskoa eroatea. Txu-txu trenaren ibilbide osoan; 11:30ean, Txu-txu trenaren ibilbide osoan; 12:30ean, mezea; 13:00etan, kalejirea herriko trikitilari gazteak; 13:15ean, barauskarria; 14:00etan, Makailao, Patata Tortilla eta Paella Txapelketa; 18:00etan, Helduen Olinpiadak; 18:00etan, fanfarria; 21:00etan, play-backa. Ostean, karaokea; 23:00etan, kontzertuak: HdH Rock taldea, Akabu eta En Tol Sarmiento. Autobusa egongo da.

Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal
bertsolariak Lemoan

Urri lehenengoaren 9an, 15:00etan bertsos-bazkaria egongo da Lemoako Elizondon eta Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal izango dira bertsolariak. Bazkalarretik, 13:00etan, poteo musikatu egongo da Kodigo tabernatik hasita, eta arrastian 18:30etik aurrera, EinGO Kantan eta Dantzan taldeagaz.

Gazteak izan arren, bertsolari ezagunak dira Labaka eta Ibarzabal. Ane Labaka Mayoz (Lasarte-Oria 1992) Arratian, batez be, Igorren eta Lemoan eskeinutako arrakasta handiko *Erradikalak gara* ikuskizunagaitik da ezaguna.

Nerea Ibarzabal (Markina-Xemein, 1994) 2016ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera heldu zuen. Bertsolaria izateaz aparte kazetaria bada Ibarzabal, eta besteak beste, Berriako Bizkaiko Hitzan idazten dau.

URRI LEHENENGOAK 3
DIMA

11:30ean, Nordic Walking Dimatik Obara; 12:00etan, krosa; 13:00etan, mezea; 14:30ean, auzo bazkaria; 17:00etan, kantaldia; 19:00etan, txokolatea eta jaien amaiera. Oban.

ZEBERIO

12:00etan, herri kirolak. Azkolariak: Aritz Irazabal, Irati Astondoa eta Jon Irazu; 12:00etan, kalejirea txistulariak; 13:00etan, Laura Orueren aldeko XVIII. urteurreneko mezea; 13:30ean, Etorri Dantza Taldea; 15:00etan, jubiladuen bazkaria; 17:00etan, herriko jubiladuen Mus, Tute eta Briska Txapelketa; 18:30ean, Zeberio eta inguruko Pelotari Gazteen Txapelketa; 20:30ean, Zeani Antzerki Taldearen *Txano Gorriko gijajabko* ikuskizuna.

URRI LEHENENGOAK 4
ARRATIA

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik.

BEDIA

16:30etik 19:30era, Liburutegian eta Bebetekan 2017-2018 ikasturtea hasiko da. Ludotekea 17:00etatik 19:30era. Urtebetetzeak ospatzeko lokalaren zerbitzua hasiko da. Liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 21era arte, Udalak antolatutako ikastaroetan eta Umeen Irakurle Klubean izen emotea. Liburutegian.

LEMOA

Urri lehenengoaren 15era arte, Eskulan, Informatika, Janari azkar osasuntsua, Moda zuzen egin eta Arteterapia ikastaroetan izena emoteko epea zabalik.

ZEBERIO

12:00etan, Gozatzera, Egurrezko jolasak ume eta helduentzat; 13:00etan, poteoa Koldo eta Unai trikitilariak; 15:00etan, indababak lagun artean; 18:30ean, esku pelota partidua. Larrabetzuko neska: Fonseca/Goiri-Zubiaur/Irturbide, 19:15ean, Kadeteak: Arandia/Larrazabal-Ballarena/ Alberdi; 20:00etan, Seniorrak: Etxebarria/Alberdi-Zezeaga/Guerrero; 19:00etan, guateka. Disko festa, 80-90 hamarkada.

URRI LEHENENGOAK 7
ARTEA

18:00etan, txupinazoa Arteako Andra Mari jaiari hasikerea emoteko. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

URRI LEHENENGOAK 8
ARTEA

Barikutik (8) zapatura (9) doan gaubean etxera bueltetako autobusak 02:30etan eta 05:00etan izango dira, eta Arratia, Galdakao eta Zornotzatik pasako dira.

LEMOA

Andra Mari Eguna. 12:30ean, mezea; 17:00etan, haurrentzako jolas eta tailerrak; 19:00etan, Zeani Antzerki Taldearen antzezlan; 20:30ean, poteo musikatu Areatzako BatucAKKB-gaz. Elizondon.

URRI LEHENENGOAK 9
AREATZA

07:15ean, mendi martxan parte hartzeako izen emotea plazan. 08:00etan, Areatzako VI. Mendi Martxa.

IGORRE

Igorreko Merkatarien Eguna. Txu-txu tren, poniak, pintxoak doban eta erromeria Lotxo taldeagaz. AMEk antolatuta.

URRI LEHENENGOAK 10
AREATZA

Corbeiko Parke Naturalak antolatutako ibilbide arkeologikoa. Bisita gidatua Urraxako kobazulora Juanjo Hidalgo arkeologoagaz.

URRI LEHENENGOAK 11
ARRATIA

Beldur Barik Lehiaketan lanak aurkezteko epea zabalitzen da.

DIMA

17:00etatik 20:00etara, errefujiaduentzako kanpin dendak, gizonzkoentzako erropa beroak, mantak eta zakuak eta galtzean ez diran janariak batuko dira Informazio Bulegoan.

LEMOA

Ludotekea zabalitzen da. 16:30etik 19:00etara. Liburutegia zabalitzen da. 16:30etik 19:30era.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

ALOKATZEN DA

100 m² dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakargarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

DANERIK

LAN ESKEINTZA

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonora.

TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

LAN BILA

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabenak jagoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefona 688 647 074.

ETXEA ALOKAIRUAN

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea dauka. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

GARAJEA BEHAR DOT

Karabanea ixteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeera eta 2,60 m.ko altuerarekin. Deitu 675 712 841 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

BEGITUKO kamiseta bana.


Igor Hernando (Zeberio)
Idoia Legarreta (Igorre)Zerturen
argitalpenak
jasoko dozuz,zozketetan
sartuko zara.

BEGITUK 14

urte eta
ehundaka
lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Letra bat. Ez orain ez gero.
2.- Galdera aurretik. Ibi. 3.- Errusiako mendebaleko ibaia. Birritan, bozina zaratearen onomatopeia. 4.- Burruka. 5.- Fosforoa. Zuhur. 6.- Zalantza. Letra bat. 7.- Kanpai hotsaren onomatopeia. Momentu. 8.- Albo. Erbia. 9.- Lanbro. Oxigenoa.

GOITIK BEHERA

1.- Materiaren oinarriko hiru egoeratako bat. Oinpeko. 2.- Langile Abertzaleen Batzordea. Zelan. 3.- Berrogeta hamar erromatar. Urindu. 4.- Jainkoa, hizkuntza semitikoetan. Irristatuz, garraiatzen dan enbor. Einsteinioa. 5.- Zazpi bider bi. Laugarren bokala. 6.- Erara. Neoia. 7.- Burla. Ondoren.



Topau joskintzeari lotutako zazpi izen.

A	Z	I	K	U	N	E	R	A	L
S	O	L	E	B	A	K	E	T	A
I	R	A	T	X	O	K	E	L	D
L	E	K	A	I	Z	A	T	R	A
O	R	R	A	X	T	U	K	E	R
G	R	E	M	O	K	A	I	P	B
L	I	M	A	Z	I	R	R	O	A
A	T	A	L	E	B	I	T	A	G
R	O	I	E	G	A	O	T	Z	A
U	K	L	A	Z	I	K	A	T	E
B	U	E	Z	A	R	H	L	A	R
O	S	R	A	J	O	L	A	R	A
D	I	A	N	E	B	R	I	R	O
I	M	E	H	A	R	I	A	O	N
A	L	K	E	B	I	T	X	U	A

AKI MI KO

Zorrozkiilo



umean moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ZUZENBIDE
ABOKATUAK;
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA;
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutzejateetxea@hotmail.com

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: urrozul@euskalnet.net

IBONE BARRENETXEA ARRIZABALAGA

"Euskal Herriko Susan Scott izan gura dot"

Ibone Barrenetxea Diman bizi da eta txikitatik argazkilari izateko sena euki dau. Horregaitik, ikasketak horretara bideratu ebazan. Fotografia artistikoa ikasi eban Bilbon. Ondoren, urte bi pasau ebazan Bartzelonako akademia baten. Behin Bartzelonatik bueltauta mundu hori alde batera itxi eta gero, orain dala hiru urte jaiobarrien argazkilaritzaren mundua ezetu, eta maitemindu zan guztiz. Ordutik, horrerri ahalegin osoa eskeintzen deutso.

Rakel Aldekoa Diez

Zergaitik argazkilaritza? Zelan ebatzi zenduan hortik bizimodua ateratea?

Betidanik gustau jata. Txikitatik esaten neban argazkilaria izan gura nebala. Ikasketak egin nebazan, argazkilaritzak arlo diferente asko daukalako. Hemen, Euskal Herrian ez neban ikusten bodetatik aparte etorkizun handirik, baina bueno gero jaiobarriena ezetu eta ikusi neban nire izakereagaz eta nire behar egiteko moduagaz bat etorri ahal zala. Argazkilaritza mota lasaigoa da, neuk antolatuten dot dana eta.

Orain, mundu guztiak etenbarrik erretratuak ateratzen dituanean, argazkilari profesionala espezializau egin behar da eta argazki artistikoak edo lortzeako gataxak diranak edo balio erantsi bat daukien egin behar ditu. Zuk jaiobarrriak, umeak, haurdunaldia eta jaunartzetan espezializau zara. Zergaitik?

Jaiobarrien argazkiak ikusi nebazan guztiz maitemindu nintzan. Eta gero ikusi neban benetan pentsau baino gataxagoa dala horreek argazkiak egitea. Behar handia dago argazki horreen atzean. Lehenengo gauzea, umea postura

baten ipinteko ordu erdi egon neiteke, dana perfekto geratu arte. Hiru lau orduko saioak izaten dira normalean. Jenteak saioetan ikusten dau argazkien ostean dagoan lana.

Haurdun dagozanakaz arazoa izaten da batzuetan, haurdun dagoan horrek bere burua lodi ikusten dauala, asko loditu dirala eta euren burua identifiketea kostetan jakie. Baina gustetan jakiez argazkiak.

Pentsetan dot, interneteri esker zure lana ez dala mugatuko Arratiara, Bizkaia eta haragoko lanak be egingo dozuzala. Eskaria nahikoa da argazkigintzako esparru honetatik bizimodua aterateko?

Hasten zarenean lan nahikoa eukiko ez ete dozun bildur zara. Ahoz aho zabalduten joan da nire lana eta apurka-apurka eta Arratian oin hasi da jentea jakiten hemen nagoala, baina egia esan, etorten jataz Arratiatik kanpokoak be, Zornotzatik eta, berbarako. Gainera, jaiobarrietan espezializauta egoteko suertea daukat ez dagoalako hainbeste jente horretan. Orduan lana badago. Espezialidadeagaz gura dot esan nire lanak sakonduten dauala ume jaiobarriengan. Gainera, nire

lana naturagaz lotuta dago eta ez dagoanez jente askorik horretan espezializauta, suertea daukat.

Zure jaiobarrien argazkiak Anne Geddes-enak ekarten dabez gogora. Eragina izan dau bere lanak zurean? Zein beste argazkilariren lanak dira zuretzat inspirazio iturri?

Anne Geddes betidanik ezetuten dot, puzzleetan eta hainbeste argazki dagoz bereak... Bera aurrendaria da honetan baina ez da nire inspirazioa. Bea Pastor, argazkilariren argazki bat ikusi neban eta pilo bat gustau jatan bere lana. Gero hasi nintzan Ameriketako argazkiak ikusten eta ikusi nebazan Susan Scott-enak. Gainera natureagaz egiten dau behar eta orduan esan neban "nik gura dot Euskal Herriko Susan Scott izan". Eta nire lana berean inspiretan da askotan.

Aire librean egiten dozuz ar-

"Animaliak garrantzitsuak dira nire argazkietan.

Askok gustetan jata

animaliak agertutea"

**guztiak, paraje natural ederretan. Non dagoz paraje horreek? Zeintzuk dira zure leku faboritoak?**

Nik beti esaten deutsat jenteari Dima dala nire estudioa. Jaiobarrien argazkiak nire ahiztearen etxean egiten dodaz eta, bueno, gero errekan. Aroztegietan be egiten dodaz argazki asko. Inoz hondartzara be joan naz, baina niri berdea gehiago gustetan jata. Beraz, Dima da nire leku faboritoa.

Eszenifikazio bat be badira. Zein ezetu behar da horretarako umea ala gurasoak? Zelan lortzean dozu ezagupen hori: alkarrizketatu egiten dozuz, ala intuizinoaz baliatzen zara? Atrezkoa zeuk ipinten dozu?

Nire beharrean zati garrantzitsu bat pazientzia da. Inoz pasau jata, gurasoak urrindutea, umeak nigaz olgetan ixtea eta umea pozik geratutea. Orduan aprobetxetan dot argazkirik onenak egiteko.

Atrezkoa jaiobarriena neuk ipinten dot. Ume handitxoak ez dot atrezkorik erabilten, natura eta umea protagonistak izatea gustetan jata eta. Gomendatuten dot erropa diferentea ekarte, erropa argia, koloreduna...

Animaliak be agertzen dira zure argazkietan.

Bai, animaliak garrantzitsuak dira nire argazkietan. Askok gustetan jata animaliak agertutea. Jenteak galdetuten deustanean "eroan ahal dot txakurra?" Ni zoratu egiten naz. Animaliak sano-sano maite dodaz.

Arratiako AEK

- Matrikula zabalik
- Maila guztiak
- Ordutegi zabalak
- Azterketa ofizialak (1., 2., 3. eta 4. maila)
- Arratiako udal guztiek diruz lagunduta

Agirre Lehendakaria 4, Igorre
94 631 56 57 - 607 632 916
arratia@aek.eus

aek
euskara praktikoa

**% 100
AFEKTIBOA**

Eman izena

